

AuzoEkin.

Talde eragilearen 2. bilera

Bidebieta, Iparragirre, Izaskun.

1. Laburrean

1. Oinarrizko informazioa.

Data: maiatzak

Ordutegia: 17:00etatik 19:00etara.

Tokia: Inmakulada Lanbide Ikastola

Parte-hartzaileak:

Parte-hartzaileak:

- Tolosako Udala:

- o Garikoitz Lekuona, Komunitatea eta Gobernantzako arduradun teknikoa.
- o Lide Olalde, Komunitatea eta Gobernantzako dinamizatzailea.

- Inguruko auzoetako bizilagunak:

- 12 bizilagun bertaratu ziren, 5 emakume eta 7 gizon.

2. Bileraren kokapena

Ongietorria eta saioaren kokapena

Lide Olalde (Komunitatea eta Gobernantzako dinamizatzaileak) ongietorria egin die bertaratutakoei, eta bileraren helburu nagusiak zein diren azaldu du laburki.

Jarraian, gai hauek jorratu dira:

1. Talde eragilearen funtzioak zehaztea, eta ondorengo urratsen metodologiaren azalpena

Talde eragilearen lana, hasiera batean, diagnostikoa egiteko hainbat erabaki hartzea izango da. Taldeko kideek elkarriketan parte hartuko duten pertsonak identifikatu beharko dituzte. Jakinda auzoko bizilagunak ez direla ez auzotarren ordezkariak, ez eta auzoaren ordezkariak ere, auzotar gisa parte hartzen dute errealitateaz hitz egiteko. Horregatik, elkarriketa hauetan, auzoan dauden askotariko errealitate aberatsak jasotzea bilatzen da.

Behin elkarriketa hauek eginda, hurrengo pausuak hauek izango dira: sakoneko eztabaidak, tailer irekiak eta deribak.

2. Elkarriketa sakonerako pertsona egokien hautaketa

Sakoneko elkarriketen eta eztabaida-taldearen helburua inkestaren teknika osatzea da, ikuspegi kualitatiboago batetik.

Elkarrizketak eginez, hobeto ulertu nahi da inguruko errealitate soziala.

Beraz, elkarrizketatutako pertsonak ez dira auzoko ordezkariak, eta ez dute auzoaren ikuspegia ordezkatzeko, baina bai informazio sakonagoa lortzen laguntzen dutenak, eta inguruko esperientziatik eta ezagutzatik, lagundu egiten dute inkesten bidez lor daitezkeen datu kuantitatiboak osatzen.

Horregatik lehenesten da elkarrizketatzen diren pertsonak auzoaren eguneroko errealitatea zertxobait ezagutzen duten pertsonak izatea eta auzoaren bilakaeraren ikuspegia izatea. Eta kontua ez da pertsona horiei inolako erantzukizunik edo ordezkagarritasunik helaraztea, teknikaren helburua inkestetatik eratorritako datuei beste geruza bat ematea baita.

Era berean, jarraian, eztabaida-talde bat egitea aurreikusten da. Talde horrek, ikerketa kualitatiboko teknika den aldetik, inguruko errealitate soziala hobeto ulertu nahi du, baina, kasu honetan, auzokideen arteko elkarreraginaren eta eztabaidaren bidez. Horregatik, egokiena da, bertan, gehienez ere, 6-8 pertsonak parte hartzea, eta zonako askotariko errealitatearen adierazgarri izatea (gizonak eta emakumeak, gazteak eta adinekoak, migratzaileak...).

Bilera hau baliatu zen elkarrizketa sakonean zein pertsonak hartuko duten parte erabakitzeko.

3. Eremuko auzotarren koordinazio eta antolaketa

Aipatu zen oso positibotzat jotzen dela talde eragileko lehenengo bilerara 30 bizilagun etorri izana; ikusi zen badagoela auzoan lan egiteko beharra eta nahia. Aipatu zen, hala ere, talde eragilea operatiboa eta eraginkorra izateko, hain talde handia martxan jartzeak badituela zailtasunak.

Horren aurrean, eremuko auzotarren koordinazio talde bat egitea ondo ikusten da. Udaletxearekin harreman zuzenagoa edukitzeko, bi bozeramaile aukeratu ziren, elkarren arteko komunikazioa asko erraztuko delakoan.

Gainera, Udalak koordinazio/talde eragilea eratzeke kanpo laguntza eskaini du. Bizilagunek asko eskertu dute. Hala ere, haien artean bildu eta horren inguruan eztabaidatuko dute, ondoren udaletxeari eskaera bat aurkezteko.

4. Itxiera

Haien kabuz biltzen hasiko direla erabaki dute, proiektuari eta auzoko talde berri honi forma bat ematen hasteko. Datorren bileran, deribetan erabiliko dugun ibilbidearen proposamen bat atera, eta guri bidaliko digute, baita eztabaida-taldeetan parte hartu behar duen jendearen zerrenda ere.

Bertaratuei eskerrak eman zaizkie.